

ELURRA

Koplatan, galdera-erantzunetan ariko gara.
Jarritako puntuari erantzungo diogu, kolpe bakarrean.

Gustuko gauza al da
zuretzat **ELURRA?**

GEZURRA – ZIURRA

Jolastera irteten
al zara **KALERA?**

GAINERA – AUKERA

Nora joaten zara
aldaparen **BILA?**

ISKANBILA – HURBILA

Beldurra al diozu
ABIADURARI?

NABARI – ADI

Trineoan edota
ipurdiz **NAHIAGO?**

DAGO – AKABO

Ibilita al zaude
eskiak **JANTZITA?**

IRRIKA – POLITA

Maldan behera oreka
ona al **DAUKAZU?**

AIZU – ENBARAZU

Bide erdian zuhaitza
agertu ezker **ZER?**

OKER – ESKER

Elur bolarekin nor
jo nahiko **ZENUKE?**

TRUKE – NUKE

Bola bat bota eta
bueltan hamar **JASO...**

ERASO – ARAZO

Arropak blai eginda
ta dardarka **HORTZAK**

HOTZAK – IZOTZAK

Sarri bukatzen dugu
ipurdiko **MINEZ...**

EZINEZ – GRINEZ

Arropak kendu eta
zenbat **UBELDURAI!**

ITXURA – GUSTURA